



DEBATO EUSKAL JAIA

1964-2014



2014 (I)



- Ba al dakizue Debako Euskal Jaia orain berrogeita hamar urte ospatu zela lehen aldiz?
- Berrogeita hamar urte? Bai, zera! Euskal Jaia berri samarra da Deban!
- Oker ez banago, 1998an ospatu genuen lehenengoz, Mendata ikastetxeak ateak zabaldu zituen urte hartan bertan.
- 98an? Baita zera ere! Ezetz ba! Aurten 50 urte beteko ditu Debako Euskal Jaiak, eta udalak, herritarrekin batera, festa berezia antolatu du!

Argitaratzailea:



DEBAKO UDALA

Egilea: Idoia Gereñu

Informazio iturria: Karlos Turrillas

Gorriak ditut eskumuturrak, artile gorritz marraztuak. Euskal nortasunaren adierazgarri, armarriak nonahi, elegante josiak. Soina, aldiz, urdin-iluna dut. Baina, haurrei gehien gus-tatzen zaizkienak, zintzilik daramatzadan bolatxoak dira, jostagarriak baitira. Eta, neuk, intsignia berezia daramat bihotz ertzean jaio nintzenetik, oraintsu 50 urte. Kaiku deitzen didate batzuek, eta artzai girotik natorren arren, baserritar jantzi airosen parte izan naiz urte hauetan guztietan.



1964

1964. urteko maiatza zen lehen aldiz kalera irten nintzenean, orain 50 urte. 1964ko maiatzeko hirugarren igandea zen, maiatzaren 17a. Amamak hilabete lehenago sortu zizkidan lehen mahukak, puntu dotorez. Biloba maitearentzat sortu ninduen. Eta gogoan dut oso, estreinatu ninduten lehen egun hura. Egun berezia izan baitzen debarrontzat maiatzaren 17 hura. Nola ahaztu lehen Euskal Jai festa ederra! Euskal Herri osotik hurbildu zen jendea Debara, zazpi probintzietatik! Gerra ostean Euskal Herrian ospaturiko lehen Euskal Jaia izan zen Debakoa eta, a zer nolako arrakasta! Kaleak euskaltzalez gainezka

izan ziren. Euskal nortasuna, kultura eta izatea aldarrikatu nahian Plaza Zaharra zein Plaza Berria jendez lepo ikusi ahal izan genituen. Eta denetan gozagarriena, hizkuntza bera.

"Vista la solicitud y programa de los actos que, bajo el Patrocinio del Ayuntamiento, presenta la Sociedad mixta OARGI, de esta Villa, para celebrar una gran Fiesta Vasca el próximo día 17 de mayo; vistos el informe favorable del Excm^o. Sr. Gobernador Civil de la Provincia y la Circular de aquel Centro Directivo de 2 de enero de 1.957, se acuerda por unanimidad autorizar el conjunto de actos recreativos, culturales y deportivos que se preparan."

Lo que traslado a Vd. para su conocimiento y efectos.
Dios guarde a Vd. muchos años.
Deva, 9 de abril de 1.964.
EL ALCALDE,

Sociedad Mixta "OARGI"

PLAZA. -

PROGRAMA PARA LA FIESTA VASCA DEL 17 DE MAYO:

- MAÑANA:
- 9 y 45 : Pasacalle desde El Casino hasta el lugar de la M^a sa. Participarán la Banda Municipal de Deva, chistularis, dulzaineros y acordeonistas.
 - 10 y 45 : Misa Dirigida.
 - 12 : Actuación de los Danzaris en la Alameda de Calbetón interpretaran dos danzas.
 - 13 y 15 : Bersolaris en la Alameda de Calbetón.
 - 14 y 30 : Comida para los actuantes en el Paseo Cubierto.
 - 16 y 30 : Partido de pelota y actuación de los diversos grupos de danza.
 - 18 : Segunda actuación de los Bersolaris. Seguidamente Rosaría hasta el anochecer.

Euskara izan zen kaleko mintzaira 1964ko maiatzeko hirugarren igandehartan. Debekuak debeku, mutu bilakatu nahi izan zuten hizkuntza, ahotan, kantutan, aldarrikapenetan entzun zen.

"Gozamena", halaxe zioen amamak, "gozamena!".

Antolatzaileek, OARGUI kultur taldeko kideek (Organización Artística Recreativa de Guipúzcoa), ezin sinestuan igaro zuten egun arrakastatsua. Oarguik urte osoa Euskal Jaia antolatzen eman zuen, eta herriz herri, hara eta hona, ibili ziren taldekideak, euskaltzaleak bilduz, jendea Euskal Jaira gonbidatuz eta parte hartzera deituz. Musika eta batez ere dantza taldeak izan ziren adierazgarrienak. Alabaina, beste herrietako jende andanaz gain, Debako herria ere modu izugarrian konprometitu zen eta emaitza halakoxea izan zen: bikaina, jendetsua eta ahaztezina. Urteetan isilpean gordetako ahotsa, hala, Deban entzun ahal izan zen.



Goizean goiz baserriar janzki apainak jantzita irten zen herria kalera. Dotore. Eta esan beharra daukat, amamak lan bikaina egin zuela neurekin, harro pasiatu nintzen bilobaren soinean estreinako aldiz. Halere, eguerdi parterako ama-amamaren eskutan gehiago ibili nintzen batetik bestera, bero egin baitzuen maiatzaren 17 hartan.

Kalera irten orduko jantzi zidaten gaur oraindik bihotz ertzean daramadan intsignia berezia. Aititak erosia zen. Ziotenez, lehen Euskal Jai hartako gastu ekonomikoei aurre egiteko saldu omen zituzten intsigniak eta baita partxe eta postalak ere. Haietan irudi, debar armarría zeraman ezkur bat, Oarguiren ikurra edota Euskal Jaietako karteiko marrazkia antzeman zitezkeen.



(Allikak utzitako argazkia)

La Comisión Permanente del Ayuntamiento en sesión celebrada el día 21 de los corrientes, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

"A continuación, se informa por la Comisión de Turismo y Festejos, de la subvención solicitada por la Sociedad mixta "Oargui" de esta Villa, con el fin de mitigar los cuantiosos gastos que, para la realización del magno festival del domingo 17 de mayo próximo, tienen presupuestados, proponiendo su concesión en razón de la extraordinaria calidad de los Grupos actuantes y por el carácter eminentemente popular y gratuito que tiene la Fiesta; acordándose por unanimidad y previo informe de la Intervención municipal, conceder una subvención de 5.000 pesetas con cargo al Capítulo VII, art. 3º del vigente Presupuesto ordinario de gastos."

Lo que traslado a Vds. para su conocimiento a los efectos procedentes.
Dios guarde a Vd. muchos años.
Deva, 23 de abril de 1.964.
EL ALCALDE, acetal





(Alikak utzizteko argazkia)

Kaleaz gozatu genuen Deban elkartutako abertzale orok. Herri ezberdinetako dantza taldeek euren dantza ezberdinak erakutsi zizkiguten. Albokariak, nafar gaiteroek, txistulari zein dultzaineroek musikaz bete zuten Deba eta herria pozik zegoen, irribarretsu eta itxaropentsu. Jai giroan igaro genituen lehen orduak, Calbeton Zumardiko kioskoan meza eta Ongi Etorri ekitaldia ospatzeko unea heldu zen arte. Orduan, herrian dantzan aritutako taldeak kiosko aurrean elkartu ziren, laurehun bat dantzari inguru, eta bat batean, guztiek elkarrekin, xingola-dantza eta ezpata dantza burutu zituzten. Emozioz beteriko unea izan zen, ia eskuak urratu arte egin baitzuten txalo gureak. Baita aititik ere!

Kiosko alboan muntatu ziren txosnetako batean freskagarri goxoak edaten zituzten bitartean, amamaren eskuetan jasan nuen nik bero sapa. Zortedunak izan ziren gure sendikoak, edariak uste baino askoz lehenago amaitu baitziren! Eta handik Euskal Jolas frontoira jo genuen, familia osoak. Bertan bertsolariekin irri egin, kantaldi sentikorrak entzun eta trikitiak gozatu genuen. Bazkaltzeko asmoarekin gerturatu ginen bazkalorduan Estalitako Pasealekura, Oarguik antolatu zuen bazkarira. Baina, ba al dakizu zenbat jende gerturatu zen hara? Han ez zegoen denentzat tokirik! Azkenean, donostiar sendi batekin bazkaldu genuen guk, etxean, aitonak gonbidatuta. Eta guk bezala, Debako beste familia ugarik, etxeetan eman zieten bazkaltzen tokirik gabe geratu ziren euskaltzale haiei guztiei! Bazkalostean, kalera irten ginen berriz ere festak jarrai zezan!


Euskal Jaiak eta Lore Jokoak

Astebetean, edo hilabetean, edo ez dakit zenbat denboran (berriz txukun armairuan gorde ninduten arte...), ez zen beste gairik izan etxean, Deban eta euskaldunen artean oro har. Egunkari eta aldizkariak Debako Euskal Jaia gaitzat hartu eta artikulu ezberdinak argitaratu zituzten.

Gurean aitona zen normalean albisteak etxean irakurtzen zituen. Familia mahai inguruan bildu eta hizketaldi luzeak izateko ohitura zuten segidan. Egun haietan ere, guztiak izan zuten zer kontatua: batak han entzundakoa, besteak han ikusitakoa... Hala jakin nuen nik Debako Euskal Jaia gerra osteko lehena izan zela, aurretik, aldiz, urte askoan zehar, beste herri ugaritan ospatu zirela Euskal Jaiak edota Lore Jokoak izenekoak.

Aspaldikoa omen da Euskal Jaiei ospakizuna Euskal Herrian. Garai batean Lore Jokoak ere deitzen zitzairen eta euskal kultura eta bizimodua ardatz zuten ospakizunak ziren, bizimodu tradizionalen zein ohituretan oinarrituta, ekintzak eta lehiaketak antolatuz egitaraua osatzen zutenak.


Imajina itzazue ganadu zainketak, ura iturritik etxera garraiatzea, baratzetako lanetan aritzea eta egungo herri kirolekin lotutako apustuak batetik, baina baita literatura lehiaketak ere, bertso saioak, pilota partiduak, dantzariak, txistulari zein albokariak bestetik... Euskal izatea harro agertzeko aukera eta eguna izan da beti Euskal Jaia.



Antoine d'Abbadie

Lehenengo Euskal Jaiak edo Lore Jokoak Ipar Euskal Herrian, Urruñan, ospatu ziren euskal pizkundearekin batera, 1853. urtean. Berauen sortzaile eta bultzatzaile nagusia Antoine d'Abbadie xiberotar ilustratu ezaguna izan zen, atzerriko kulturak aztertzeaz gain, etxekoa ere aztergai izan zuena.

Pixkanaka, Urruñatik Sarara, Donapaleura, Maulera eta beste herri batzuetara hedatzen joan zen Euskal Jai festa. 1879an, Hego Euskal Herrian lehenengoz Elizondon ospatu eta, segidan, Gipuzkoara (Donostia, 1879), Bizkaira (Bilbo 1881) eta Arabara (Aramaiio, 1899) zabaldu zen. Geroa, herri ezberdin eta ugaritan nongotasuna eta nortasuna adierazteko gogoz, Euskal Jaia leku zein toki anitzetan antolatatu zen.



Lore Jokoak Elizondon (1879).

XX. mendearekin batera, euskal folklorea euskal nortasunaren defentsan eta tresna politiko moduan ulertua eta erabilia izan zen. Zer esanik ez II. Errepublika garaian. Espainiar Errepublikak bizimodu berria ekarri zuen Euskal Herrira ere. Euskal kulturak, folkloreak eta politikak arnas une eta loratu aldia bizitu zuen, eta alderdi abertzaleen inguruan talde ezberdinak sortzen hasi ziren: dantza taldeak, abesbatzak, mendigoizale elkarteak, antzerki taldeak... Eta lore joko ezberdinak ospatu ziren urte guzti haietan zehar.

Iritsi zen gerra garaia eta jarraian frankismoa, ordea. Eta harekin batera euskal folklore eta kultur adierazpen guztiak eta baita euskara bera ere debekatu ziren. Beldurraren, sufrimenduaren, kartzela eta fusilatuen bidez, euskal boza irentsi zuten. Eta euskaldun askok eta askok erbestera ospa egin beste aukerarik ez zuten izan. Hala, erbestea izan zen euskal dantza, kantu, argitalpen eta abarren sostengua urte guzti haietan zehar; atzerrian erbesteratuek dantza taldeak, aldizkari eta argialetxeak, euskal etxeak... sortu zituztelarik. Euskal gobernuak ere erbestean lanean jarraitu zuen.

Bideari eutsiz, poliki-poliki, 50. hamarkadatik aurrera Euskal Herrian hainbat talde abertzale antolatzen hasiko da berriz ere, euskaltasunari zegokion lekua eskaini nahian. Oarguirekin batera, Euskal Herrian Euskal Jaiak berreskuratu ziren eta 1964. urtean lehen aldiz, Deban elkartu zen euskal abertzaletasuna.





1965



(Alilik uzitako argazkiak)

Asko ikasi nuen denbora gutxian, baita armairuan zintzilik igaro nituen hilabete luzeetan asko hausnartu ere. Herria euskaldun sentitzen zela ohartu nintzen eta neuk bolatxoak asper-asper eginda nituen arren, ametsak bizi-bizi sentitzen nituen neure baitan, airean huraxe baitzebilan jiraka: ametsa, itxaropena eta bizipoza. Burutazio horiekin ireki nituen begiak 1965eko maiatzeko hirugarren igande hartan.

Ez da sinesten erraza, baina 1964ko lehen Debako Euskal Jaia entzutetsua izan bazen, zer esanik ez 1965ekoa, bigarren Euskal Jaia. Lehen urtetik bigarreneira Debara hurbildutakoen kopurua laukoiztu edo boskoiztu egin zela zioen jendarteak. Nik ez dakit zenbat pertsona bildu zen Debako kaleetan egun hartan, baina pauso bakar bat lasai ematea lan nekeza zela zin dagizuet! Zoramena izan zen! Autobusak Itziar eta Mutriku aldean aparkatu behar izan omen zituzten, herrira sartzerik ez zegoelako! Eta trenak aldiz, jendez gainezka iritsi ziren!



Expenses list from the document:

Gastos originados en la realización de la II Fiesta Vasca de DEBA de 1.965.	
Gastos aproximados:	
Carteles Murales	= 30,000,- Ptas.
Altavoces	= 27,000,- "
Mesas y Sillas - Alquiler	= 10,700,- "
Programas Manuales	= 10,500,- "
Compra de Tablones para colocación mesas	= 12,700,- "
Insignias	= 42,700,- " X
Hand de obra de Carpinteros	= 5,800,- "
Gastos Imprenta	= 4,200,- "
Viajes Organización - Colocación Murales	= 7,300,- "
Guardias Nocturnos	= 5,000,- " X
Gastos Diversos - Comidas, etc.	= 6,575,- "
Aproximación TOTAL	162,475,- Ptas.



(Alikak utzitako argazkia)

Argi zegoen aurreko urteko arrakastak oihartzun ikaragarria izan zuela euskaldunen artean eta lagun gehiago animatu zela Debako herrira bigarren Euskal Jai hura ospatzera. Jendea euskaldun sentitzen zen eta herriaren aldeko ekintzen gose zen. Baina tristeki, talde abertzaleen artean bideak beiziten hasiak ziren ordurako eta, 1965. urtean, ez zuten partidu politiko guztiek babestu Debako Euskal Jaia.

Halere, Debako herriak parte hartze zuzena izan zuen prestaketa egunetan eta arrakasta itzela izan zen 1965eko maiatzaren hirugarren igande hartakoa. Euskal Jaiak aurreikuspen guztiak ederki gainditu zituen bigarren aldiz, eta urte askoan azkenengoz.



(Alikak utzitako argazkia)

EUSKAL JAIA

DEBA'N

1.965'ko Maietza'ren 16'an

GOIZETIK:

- 10'etan** Ondarrako eskolaren, dantzen, txistulari ta abar, talde guztiak batuko dira.
- 10 12'etan** **Lomakoaldia:** Txistulari, abareri ta dantzariak, **22** talde ederrek eroin 16le jira egingo dute.
- 11'ean** Dantza "Kaskas" Maza mugosia ikarritaze.
- 12'ean** Dantzeri talde guztiak, bakoitzak bere aldetik errika tiki berezietan dantzatuko dira. Nun eta nolai oneraz aditzen emango dogu. Dantzeri talde'een izenok:

Andra Mari	Galdekano	Irrintzi Alai	Igorreta
Andra Mari	Villafraña	Kresala	Ondarru
Arraizpe'ko Lorak	Bilbo	Oargui	Azpeiti
Axari	Idiazabal	Oargui	Deba
Biotz Alai	Bilbo	Oñaztarri	Bilbo
Club Deportivo	Eibar	Ozkarbi	Figuera
Dindirri	Bilbo	San Miguel de Arretxinaga	Marquina
Elai Alai	Portugaitole	Tranperri	Durango
Eusko Lorak	Sestao	Txanpa	Ondarru
Gaztedi	Bilbo	Uda Berri	Tolosa
Goizaldi	Donosti	Urartea	Bilbo

1'etan Piletu lekian, abesbatz edo "orfen" abek abertuko dute. **Bilbo'ko Arraizpe;** **Bilbo'ko San Antón;** eta **Lazkao'ko Eguzki.** Baita ekin bat egingo dute **Galdakao'ko Triki-Tiki ta Albokariak.** Oritu beren **Elizako emparatzen** txistulariak ja egi'edez bat egingo dute.

ARRATZALDEAN:

- 4'etan** Euskal-jalek piletu lekian polara paridu aipogari bat izango da. Nortzuk jakiniko dute, buruz aditzen emango da. Oritu beren baita, "kaskas" berolari ospetuzk egingo dute ekizaldi atsegin bat.
- 5'etan** Ondarrako eskolaren dantzeri talde guztiak bitartea dira kale-jira egitez Zumardiko "kaskas" asaitzeko. Danok era batera egingo dute. Nesketak dantzatuko ditena, arri Kantapas. Mutillak "Kapitan" zortzikop, Makil Dantza ta Txankarranko. Ondoren erromerri, gaztediak izango da, nun dantza egin onkoko.
- 8'etan** Jal-aldiaera ematera Zumardiko "kaskas".

Asturaganen (10ak 15) orratzaldeko 7'ean txistulariak kale-jira egingo dute, abekin dantzainurruak baita. Kanpai-jetxe eta zuzirik.

Ozueko 10'ean Zubelen'ri jai eder bat izango da, bertan ospatuko dira: **Dantza OINKARI** dantzeri taldea; **Palatala** "pelicula"; ta **ALLEGRO** "Ochete" taldea Zorluze'koa.

Televisión VANGUARD - Zaltzalea Deba'n

SAGARNA

OARGUI-DEBA

1966

Iritsi zen 1966ko hirugarren igandea ere. Baserritar jantzi guztiak garbi eta txukun prestatuta geunden, badaezpada, ohe gaintan, Hirugarren Euskal Jaia ospatzeko desiotan. Ez zen aurreko bi urteetan bezain egun zoriontsurik izan 1966. urte hartan, ordea. Ez horixe.

Oarguiko kideek III. Euskal Jaia izango zenaren bezperetan festa debekuaren berri izan zuten. Gipuzkoako Gobernadore Zibilak debekua bidali zion orduan Debako alkatea zen Ángel Pérez Busterori, eta honek Oargui elkarteari berria helarazi zion. Hori nahikoa ez eta batzuek “Casa Cuartel”-era deklaratzera ere joan behar izan zuten.



Beste usain bat zerion Debari egun hartan, lausoagoa, ilunagoa. Guardia Zibilak gaua herria zaintzen pasatu zuen eta Guardia Zibilez josita esnatu zen Deba goizean. Herriko sarrera guztietan kontrolak ezarri zituzten eta festa asmotan zetorren jendeak ezin izan zuen Debara sartu.

Ondorioz, Deban ez zen III. Euskal Jairik ospatzeko aukerarik izan 1966 hartan. Hala eta guztiz ere, Deban ezer ospatzerik izan ez zen arren, herria ez zen erantzunik eman gabe geratu, eta Ondarroan nola Lekeitio, Eibarren eta Markinan, Debara zetozen euskaltzaleak bildu eta manifestazioak burutzeaz gain, abesti eta oihu abertzaleak gogotik jaurti zituzten.



GOBIERNO CIVIL DE GUIPUZCOA
SECRETARIA GENERAL

Sección 2ª
Negociado A.G.
N.º 973

Con referencia a su comunicación número 71, de fecha 4 de los corrientes, a la que acompaña la solicitud formulada por la Sociedad "OARGUI", que pretende se le autorice una cuestación para el día 15 de Mayo, participo a V.S. no existe constancia en el Libro-Registro de Asociaciones, de que dicha Entidad se halla constituida reglamentariamente; por lo que se interesa de V.S. concrete los fines de la misma, fecha de constitución, Organismo autorizante, y antecedentes de los directivos.

Dios guarde a V.S. muchos años.
San Sebastián, 9 de Febrero de 1.966

EL GOBERNADOR CIVIL



Sr. Alcalde Presidente del Ayuntamiento de

D E V A.-

Al contestar citese el Negociado y Número Indicación en el membrete

1998

Ni ez nintzen, Euskal Jaia bera bezala, oroitzen eta gomutetan gordeta egon urte guzti haietan. Zorionez, kaikuok badugu non erakutsi gure alderik ederrena urteko beste egun batzuetan ere. Eta belaualdiz belaualdi, sendiko neska zein mutil kozkor guztiek, banan bana, hiruzpalau urtez bakoitzak, ondo agertu naute festa giro ezberdinetan.

Alabaina, 33 urte behar izan zituen kostaldeko herri dotore honek bere Euskal Jaia berreskuratu eta nahi eta behar bezala beste behin ere hura ospatzeko, atzerakoak begiz galdu gabe aurrera so bidea eraikitzen jarraitzeko.



1976. urtea



Egutegiari begira jarriz gero, maiatzeko hirugarren igandea Debarren Egunari zegokion orduko, ez Euskal Jaiari. Noiztik eta **1976**an San Roke Ermitaren berrikuntza lanak zirela eta burututako ospakizunetatik aurrera, hain zuzen ere. Halere urte berean, 1976an, eta bi urtez jarraian, Gazteen Elkarteak Euskal Kulturaren Astea antolatu zuen Deban. Egitarauaren barruan, Euskal Jaia izenarekin egun bat ospatu zuten, Euskal Kulturaren Asteko azken eguna, eta Euskal Herri osoko dantzari, musikari eta ikusentzuleak arrakastaz bildu ziren orduan ere. Kuku polita izan zen, baina horrek ere ez zuen jarraipenik izan.



“EUSKAL-JAIA 77” DEBAN

GOIZEAN

8,30 etan
9,00 etan
9,30 etan
10,30 etan
11,30 etan
12,30 etan

DIANA Iruinako **DULZAINEROEKIN**
TXALAPARTA EDORTA AGIRREKIN (Emparantzán)
ITURENGO TXUNTURROAK (Kalez Kale)
KALEJIRA KEZKAKO TXISTULARIEKIN
DANTZARIEN ALARDEA (herriko Kaleetan)
DANTZARIEN SAIOA (Ondartzako enparantzán)

DANTZA TALDEAK

izango dira:
HASPARNEKO Taldea (Lapurdi)
— **UZTARITZKO** “IZARTXO” Taldea (Zuberóa)
— **ALTZAIKO** “ALTZAI” Taldea (Lapurdi)
— **KAMBOKO** Taldea (Benafarroa)
— **PORTUGALETEKO** “ELAI-ALAI” Taldea (Bizkaia)
— **IRUINAKO** “ORTZADAR” Taldea (Nafarroa)
— **GASTEIZKO** “GAZTETXO” Taldea (Araba)
— **OINATIKO** “OINATZ” Taldea (Gipuzkoa)
— **DEBAKO** “GURE KAY” Taldea (Gipuzkoa)

2,00 etan
2,30 etan

KALEJIRA KEZKAKO TXISTULARIEKIN
BAZKARIA Herriko Ekarteetan

ARRATSALDEAN

4,45 etan
5,30 etan

KALEJIRA TXISTULARI ta **DULZAINEROEKIN**
JAIALDIA

— **ERROBI**
— **EZBAI**
— **PATXI BILAMOR**
— **MAITE IDIRIN**
— **OHIARTZUNAK**

OHARRA. — Mesedez eskatzen dugu Antolatzaileen esaneri indikapenak jarraitzeko berebrebak (kotteak) leku egokian uzteko.

ANTOLATZAILEA

1977. urteko argazkiak eta egitaraua.

Hala, eta 33 urte geroago, euskaldun senak indarberrituta, euskal kultur talde berriak lanean zihardutela eta Zuhatzak euskararen bidea gozaten zuen heinean, Euskal Jaia bera eta bere izatea berreskuratzea eta hura berromentzea adostu zen Debako herrian, egitaraua irailera berrituz baina usadio eta sustraiak mantenduz.

Kaiku xumea eta zaharkitu samarra naiz. Artile finez sortu nindutena orain 50 urte. Soina urdin-iluna dut eta esku-muturrak gorritzak. Punturen bat, urraturen bat, konpondu izan didate noiz edo noiz. Baina bizirik eta pozik diraut. Neuk eta nire bolatxoek. Haurrei gehien gustatzen zaizkienak zintzilik daramatzadan bolatxo jostagarriak baitira! Bai, bizirik eta pozik diraut. Eta bihotz ertzean intsignia berezia daramat jaio nintzenetik. Jaio nintzenetik gaurdaino.



2014 (II)



- Ba al dakizue Debako Euskal Jaia orain berrogeita hamar urte ospatu zela lehen aldiz?
- Bai noski!! Eta udalak, herritarrekin batera, festa berezia antolatu du aurtengorako!
- Zuhatzak, bazkari herrikoia eta marmitako lehiaketa, ezta?
- Gainera, aurten, Euskal Herri osotik dantza talde ezberdinak etorriko omen dira...
- Badugu zer ospatua beraz!
- Hauek guztiak eta gehiago!
- Ba, izan dadila aurtengoa lehen Euskal Tai haren omenaldia; eta ospa dezagun lehen Euskal Tai hartako gogo, asmo eta indar berarekin!
- On Egin!



• IRAILAK 23, asteartea

19:00etan: 1964/65eko Euskal Jaiaren argazki bat zintzilikatuko da musika eskolan, eta bertan Gure Kai dantza taldeak ohorezko agurra dantzatuko du.

Ondoren, Agirre jauregiko erakusketa aretoan, **Euskal Jaietako kartelen erakusketa,** 23tik 28ra. Orduetgia:

- Astelehenetik larunbatera: 18:00-20:00
- Igandean: 12:00-14:00

• IRAILAK 24, asteazkena

19:00etan: Tene Mujika beka: Josu Martinezek *“Tunelak, izarak, mozorroak eta bafleak”* liburua aurkeztuko du Agirre jauregiko ispiluen gelan.

• IRAILAK 25, osteguna

19:00etan: Mahai ingurua: *“Debako Euskal jaiak”*, Agirre jauregiko ispiluen gelan.

• IRAILAK 26, ostirala

22:00etan: Jokin Lasaren kontzertua: *“Zortziko txiki bat”* plaza zaharrean.

• IRAILAK 27, larunbata

10:00etan: Dantza talde guztien bilkura Foruen plazan (Elkartek eskainitako salda eta txorizoa).

12:00etan: Taldeen dantzak herrian zehar.

13:30ean: Dantza taldeei ongi-etorria zumardiko kioskoan: Andramari (Galdakao), Bihotz Alai (Bilbo), Kezka (Eibar), Elai Alai (Portugalete), Gaztedi (Bilbo), Goizaldi (Donostia), Irrintzi Alai (Legorreta), Gure Kai (Deba), San Migel de Arretxinaga-Zerutxu (Markina-Xemein), Tronperri (Durango), Uda Berri (Tolosa), Haritz (Elgoibar), Kresala (Ondarru).

14:30ean: Marmitako lehiaketa. Parte hartu nahi dutenek marmitako plater bat aurkeztu beharko dute.

15:00etan: Bazkari herrikoia Aldats pilotalekuan (700 lagunentzat).

18:30ean: Erromeria Zesuma taldearen eskutik Foruen plazan.

23:00etan: Erromeria Zesuma taldearen eskutik Foruen plazan.

OHARRA: Jai Batzordeak egun honetan baserriarrez janztea eskatzen du.